



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2024ko APIRILA - 252. zenbakia

Gipuzkoa bertsoan loratuko da

2024ko udazkenean egingo da, bost urteren ondoren, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Oraindik hilabete batzuk falta diren arren, Gipuzkoan jarriak dira udazkenari begira: apirilaren bukaeran hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea.

Iritsi da txapelketa urtea Gipuzkoara: udaberriaren ekingo dio sailkapen faseari. Apirilaren amaieran hasi eta ekainaren 2ra bitarte iraungo du fase horrek: 20 saio jokatu dira, bi itzulitara. 74 bertsolari ariko dira kantuan, eta horietatik 48 sailkatuko dira bigarren itzulirako; udazkeneko txartela, aldiz, 34 bertsolari lortuko dute.

Aurtengo edizioak berezitasun ugari dakartza. Batetik, bere iraupena: hilabete eta erdi pasatxo iraungo du, 20 saio jokatu baitira. Saioak bikoitzak izango dira, lehen itzuliko lehena eta azkena izan ezik. Lehen itzulian 12 saio izango dira, ostegun eta ostiraletan; bigarren, aldiz, 8, larunbat eta igandeetan.

Baina bere egitura ez da berritasun bakarra, txapelketaren forma bera ere aldatu baita. Ariketan berritasunak daude, eta horien lanketaren atzean egon da Bertsozale Elkartearen Batzordea, Talde Antolatzailearen baitan.

Bertso-eskolak oinarri

Txapelketako sailkapen fase hau egin dadin ezinbestekoa da lehengai egotea: bertsolariak, antolatzaileak, gai-jartzaileak, epaileak eta, oro har, bertsozaleak. Bertsolariaren ekosistema honetan lehengai hori sortzen dutenen lana eskertu eta lan horren aitortza egin nahi diete bertso-eskolei: jakitun baitira beraiek direla aipatutako ekosistema horren eusle.

Hain zuzen ere, aurtengo irudia eta mezua ildo horretatik diseinatu dituzte. Unai Gaztelumendiren irudiak bertso-eskolei lehen belaunaldi inguruko irudiak dakartza, behean Uztapide duela. Zuri-beltzeko argazki horretatik gaur eguneko bertso unibertsora heltzeko ezinbesteko pausoa izan dira bertso-eskolak, eta horixe irudikatu nahi du, hain zuzen ere, Gaztelumendiren irudiak.

Horri lotuta, txapelketaren beste berritasunetako bat da saio bakoitzaren ostean afari-merienda antolatuko dutela tokian tokiko bertso-eskolek. Keinu hori, hain zuzen ere, aurtengo txapelketaren mezuarekin bat dator, bertso-eskolak erdigunean jartzen baitu, eta bertsoaren unibertsua zabaltzen baitu.

Talde Antolatzailea udazkenetik ari da saioen prestaketekin lanean eta, urte hasieratik, gai-jartzaile eta epaileak ere lanean ari dira.

Saioei, herriei, ordutegiei zein sarrerei buruzko informazioa www.bertsozale.eus-en dago eta sarrerak salgai www.bertsozale.eus-en atarian.



ANER EUZKITZE

GABIRIA, 2024-04-16

OSINALDE SARIKO IRABAZLEA

Doinua: XILABArA jina nauzu

Joan dira ba hiru urte Maddiri, Oihanari heltzen ze ez naiz aspaldian gazte mugimendu ta gaztetxeen plaza ari den berriz gizon ta zis-heteroz betetzen. Neuk behintzat azken urtetan bide bat egin dut ezen, gizon askoko saiotan ez bainaiz sarri agertzen, ta ba ez, hau egia esan guztiz eroso ez zen. Beraz sari hau ta muxu bat zirkuito hura edertzen duzuenei gero hona indarrez etor gaitezen.



74 bertsolari hartuko dute parte aurtengo sailkapen fasean. //XDZ

Irailean itzuliko da Hitzetik Hortzera

Martxoaren azken astean bukatu zen Hitzetik Hortzeraren azken denboraldia. Mirari Martiarenak aurkeztu du lehen aldiz bertsoa ardatz duen ETB1eko programa eta irailean ere berak jarraituko du lan horietan.

Bost urteko zikloa itxi ondoren, denboraldi eraberrituari ekin zion Hitzetik Hortzerak 2023ko irailean. Programaren irudia eta koloreak berritzeaz gain, aurkezlea ere aldatu zen: Mirari Martiarena oiartzuarrak aurkeztu du programa.

Astero bertsoa, bertsolaritza eta bertsogintza zabaltzea da Hitzetik Hortzeraren helburu nagusia. 48 herritako bertsoak eman dituzte, 76 bertsolarik kantatu dute programan eta 29 elkarrizketa egin dituzte guztira. Gaizka Azkarate programaren zuzendaria gustura dago emaitzarekin: "Bertsolaritza pantailara eramateko kode ezberdin bat probatzeko ahalegina egin dugu". Bertsoaldiak umorez aurkezteko apustua egin dute aurten "beti ere bertsolari zein gai-jartzaileen lana errespetatuz".

Euskal Herri luze zabalean plazaz plaza ibiltzen den programa da eta Azkarateren arabera "aniztasun horrek egiten du berezi Hitzetik Hortzera". Denboraldi berrian herri gehiagotan ibiltzea helburuetako bat izango dela dio, "baita bertsolaritza ardatz izango duen programa erakargarri eta dibertigarri bat osatzea ere".

Horrez gain, denboraldi honek ere izan du berritasunik. Zazpi bertsolariri bertso jarriak egiteko enkargua egin zitzaizen eta musikari laguntzaz grabatu ziren bertso sortak. Emaizta eta erantzun bikaina izan zuten eta aurrera begira sorta berriak prestatzeko lanetan ari dira Hitzetik Hortzerako lan taldea, baita bertsolariak ere.

Euskal Herriko Bertsozale gaztetxoek ere izan dute euren lekua Hitzetik Hortzeran. Azkaine, Igorre, Arantza, Gasteiz eta



Hitzetik Hortzerako lan taldea Jokin Pinatxo musikariarekin. //XDZ

Alegiko bertso eskoletako kideei bertsolaritzari buruzko euren iritzia emateko eskatu zaie *Txikitik handira* atalean eta modu fresko eta bizian egin dituzte euren ekarpenak.

Hilabete askoko geldialdia iruditu arren, ez du atseden hartzeko tarte askorik izango Hitzetik Hortzerako lan taldeak. Izan ere, dagoeneko jarriak baitira irailari begira, sukalde lanean. Bitartean gogoratu zauden lekutik mugitu gabe bertsoaz eta bertso plazaz gozatzeko aukera duzuela Bertsoa.eus atarian.

Hernandorena gazteen sariketa izango da datozen asteetan

Bi urtez behin egiten den sariketak bi kanporaketa eta finala izango ditu aurten.

Teodoro Hernandorenaren omenez, bi urtez behin bertsolari gazteen sariketa antolatzen du Bertsularien Lagunak Elkartek. 16 eta 22 urte arteko Euskal Herriko 12 bertsolarik hartuko dute parte 2024ko edizioan. Apirilaren 20an, Irisarriko Gure Doia ostatuan izango da lehen kanporaketa. Bigarrena berriz Hendaiako Baleak elkartearen. Finala, azkenik, maiatzaren 11n izango da Senpereko Larraldean. Saio guztiak 19:00etan hasiko dira eta jatekoa zein edatekoa izango dira.

Teodoro Hernandorena sortzez zizurkildarra zen, baina 1936ko gerraren ondotik Donibane Lohitzunera joan zen bizitzera. Gipuzkoan bizi zenean bezala, Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan kulturgintzaren eremuan aritu zen lanean eta saiakera handia egin zuen bertsolaritzaren sustapenean.

Hernandorena sariketaren helburua eskolarteko txapelketetako ibilbidetik plazara jauzia ematen ari diren 22 urte arteko gazteei lekua eskaintzea da. Aurten, gainera, irudi berria egin diote sariketari, Mari Campistron aldudarrak sortu du.



Maiatzaren 11n egingo da Hernandorena Sariketako finala Senpereko Larraldean. //XDZ

“Identitatea performatibotzat jotzen dugu eta honi pisua eman nahi izan diogu”

Bertsoa oinarritzat duen antzerki ikuskizun berria dakarte Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Aritz Katarainek. Lokatz Loreak sormen taldeko kideek sortu dute *Itzal(iko) bagina*. Ikuskizuna oholtzaratu aurreko eta ondorengoei buruz galdetu diegu hiru bertsolari gazteei.

Nondik jaio zen *Itzal(iko) bagina* ikuskizuna sortzeko ideia eta gogoak?

Duela bi urte sortu zen Lokatz Loreak sormen taldea, “Frika Saiok” ekimenetik. Zenbait proiektu aurrera eramanez ondoren, arnasa hartzeko barealdi antzeko batean geundela iritsi zen emanaldi hau egiteko proposamena. Lankuk gure aldeko apustua egitea pozgarria izan bazen ere, zer pentsatu eman zigun proposamenak. Izan ere, oso kontziente gara oholtzan ahotsa hartzeak duen garrantziaz eta arduraz. Hau horrela, zerbait sortzeko gogoz, gaien aukeraketari eta ideiarenean enborra josteari ekin genion. Argi izan dugu hasieratik sortzea aldarriarekin estu lotuta dagoela eta hori izan da gure kezka handienetako bat, “*Zer daukagu guk esateko?*” Bada, antza badugu zerbait esateko eta hori izan da gure motibazio handienetako bat, bertsoari edo munduari, asko esatea ez bada, zerbait eskaintzea.

Zeharkatu gaituena performatzen... Zerk zeharkatzen zaituzte? Eta zer performatu nahi izan duzue?

“Zeharkatu gaituena performatzen” azpizitua intenzioz bete da. Tramaren eta haren esanahiaren zenbait puntu barnebidu ditu. Gu bertso-munduratzeko prozesuan eta oro har orain artean izan ditugun bizipenetan zeharkatu gaituzten zenbait auzi (ez guztiak, noski) kontatzen ditugu emanaldian. Ez da obra autobiografiko bat, ezta beste pertsona espezifikoaren baten bizitzaren ingurukoa ere. Mundua begirada zabalago eta komunago batetik begiratzeko saiakera bat da. *Gorputza, lotsa eta lehia* eta hauek inguratzen dituzten gatazkak dira, besteak beste, emanaldian agertzen diren gaiak. “Performatu” hitza ere ez genuen ausaz idatzi, identitatea performatibotzat jotzen dugu eta honi pisua eman nahi izan diogu. Aipatutakoa antzezipenetik, gordin eta umore puntu batekin aurkeztu nahi izan dugu.

Nolakoa izan zen sortze prozesua?

Polita izan da. Kolektiboan sortu dugu gidoia eta obra bera. Proposamena jaso eta berehala hasi ginen sortze prozesuarekin, uda oso bat eman genuen zer esan nahi genuen pentsatuz, doinuak aukeratuz, errimak landuz, aurretik idatzitakoa ezabatu eta berriz idatziz... Gustura hartu genuen, gozagarria egiten zaigu batera sortzea. Behin gidoiaren lehen zirriborroa geneukala, Iraitz Lizarragarekin hasi ginen emanaldiari forma ematen eta pixkanaka antzerki bihurtzen. Bertsolaritza den kutxa zurrun horretatik ateratzeko aukera eman digu antzerkira hurbiltzeak, pertsonaiak mimo handiz landu ditugu eta asko ikasi dugu elkarrengandik.

Nola aldatu da buruan zenutenetik oholtzan ikusi daitekeenera?

Esan nahi genuena argi geneukan, eta bageneukan emanaldia izan zitekeenaren ideia desitxuratu bat. Hala ere, berria den zerbait egin nahi den momentuan, inoiz ez dago argi nora hel litekeen. Konfidantza osoa jarri genuen Iraitzengan gura genuen antzerki formato hartara heltzeko. Bidean, beraz, malguak izaten saiatu gara mezua mantentzen zen heinean, beraz aldatu egin da emanaldia. Berritasuna lortu nahi genuen eta pozik gaude emaitzarekin.

Izaro, Aritz eta Janireren itzalak dira ikusten direnak?

Ez gara gu emanaldiko pertsonaiak. Garrantzitsua da hori ulertzea ikuskizunak zentzua izan dezan. Gure bizipen erdi esajeratu batzuk antzezten ditugu, baina baita gure izan gabe zeharkatu gaituztenak ere. Norberarena ez baita norbera zeharkatzen duen bakarra. Nahiz edo ez gugan izugarri eragin dute elkarren eta inguruko testuinguruek. Oholtzan agertzen direnak gu bagara ere, edozein identifikatuta sentitu dadin da helburua.

Ze leku du bertsoak ikuskizunean? Zein forma hartzen du?

Gidoia bera bertsoz osatuta dago. Gu bertsolariak gara eta bertsoak presentzia handia du emanaldian. Saiatu gara, doinuak aukeraketarekin, erritmoa edo sakontasuna ematen zenbait puntutan. Finean, bertsoa aldarrikatzeko tresna gisa ulertzen dugu eta berau erabili dugu esan nahi duguna modu zainduan kontatzeko. Elkarrizketak bertsoz gertatuko dira; beraz bereziki zaindu behar izan dugu aspektu hau.

Horrez gain, antzerki formatua eman nahi geniola oso argi izan genuen hasiera batetik. Obrak trama itxura du. Horretarako, antzerkiaren diziplinan babes zein erronka handiak hartu ditugu. Bertsolariaren harrizko gorputzetik ihes egin eta gure buruak zaurgarri aurkezteko bidean, erabaki hau berebizikoa izan da. Bizkar atzeko eskuak eta entonazio monotonodun kantakerak ahaztu ditugu. Antzezttera gatoz, nahiz eta bertsoa izan den gure tresna gidoia gauzatzeko eta istorioa bertso-munduan kokatzen den.

Hirurak bertsolariak zarate. Ze ekarpen egin dizuete *Itzal(iko) baginak* bertsolari bezala?

Oholtzaratzeko modu berri bat, esan dezakegu eskuak poltsikotik atera ditugula. Bakoitzari aportazio pertsonal handiak egin dizkiola esango genuke. Talde bezala, bestalde, bertsoa ulertzeko bestelako modu bat eman digu, bertsoa praktikatzeko beste modu bat. Batez ere, Iraitzen laguntzaren aberasgarritasuna azpimarratu nahiko genuke. Aurrerantzean oso presente izango ditugun bizipenak eman dizkigu prozesuak, eta emango dizkigu oraindik ere.

Elkarrizketa osoa www.bertsozale.eus-en



Izaro Bilbao, Janire Arrizabalaga eta Aritz Katarain bertsolari gazteak. //XDZ



Puntua jarrita

MIKEL GOIRIENA LARRAZABAL

Gurekin ez daudenekin hasten da bertsoarekin dudan lehen oroitzapena: gure aititerek. Elorrixoko Ferixa Nagusikoak ziren, bertan gure aitite, amaren aita, nire izenaren eta bigarren abizenaren iturburu, gure aitari galdezka ea *Urkizu Aldatsekua* jauregiko eskaileretatik abesten zebiltzan horiek bat-batean ari baziren. Gure Elorriko aititek ez zekien euskaraz, baina adi-adi entzuten ari zen, miresmenez. Gure aitak baietz erantzun, bat-batean ari zirela. Bat-batean abestu zion Egañak Himalaian galdutako bere lagun Felixi bertsoarekin dudan nire hurrengo oroitzapenean ere. Berriz ere ez daudenak tartean, kasu honetan telebistatik, baserriko sutondoan.

Laster ikasi nuen nik ere zer zen ez daudenei abeste hori. 16 eta 30 urterekin, errepideak eta itsasoak kendu zizkigun lagun-min biri abestu nien elizako aldaretik. Baita gure Mungiaiko amomari ere. Elizako isiltasun hori, hilkutxa aurrean, mundu guztia adi, negarrez. Momentu hunkigarriagorik, gutxi. Bertsoak badu zerbaite, barrua iraultzen diguna. Edo barrua husten laguntzen diguna. Ahozko transmisioaren magia agian? Edo neurri mugatuak duen berezko limitazio horiek, lagunduko ahal du 10-8, 8-8 edo 7-6 batean zelan edo halan laburbildu den hori entzuten duenak bere barne bizipenez osatzeko aukera emanez?

Kasua da ze, berdin Himalaiakoak, berdin Fredik edo Amurizak aitari botatakoak, berdin gure lagunena, gure amomana, abesten ditugunean "gure" sentitzen ditugula. Beste batenak dira baina gureak dira. Gureak dira baina denonak dira.

Amomari botatako azken berbak honako hauek izan ziren: "betirartean biziko zara gure barruen, amoma". Eta horrela da. Abesten ditugun bakoitzean berpiztu egiten ditugula sentitzen dut.

Gai transzendentetatik transistoreetara salto eginda, Erlantz, nola ikusten duzu bertsoak komunikatzeko duen gaitasuna?

Koplak

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek sustapen eragilea behar du

Sustapen eragiletzan aritzeko lagun bat behar dugu Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen. Besteak beste, sustapen egitasmoen koordinazioa eta kudeaketa izango dira bere ardurak (Txapelketa Nagusia, herrialdeetako txapelketak, Bertso Eguna...). Interesatuok bidali Curriculum Vitae eta motibazio gutuna sustapena@bertsozale.eus helbidera maiztaren 6a baino lehen (egun hori barne). Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian duzue, lan-eskaintzen atalean.

Poto-Finixa



Harro. Bertsozale. Herri.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Maiatzean bilduko dugu bazkide kuota

Urtero bezala, maiatza hasieran kobratuko da Bertsozale Elkarteko bazkide kuota. 2023an egin zen azken igoera eta martxoan Agurainen egin zen Batzar Nagusian berdin mantentzea erabaki zen. Kuota 65 eurokoa da norbanakoentzat eta 130 eurokoa elkarte edo erakundeentzat.



Info + | **Lanku**
www.lanku.eus

ZEHARKATU
GAITUENA
PERFORMATZEN

PUBLIZITATEA